

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2839

IRAGARKIA, 2022ko maiatzaren 23koa, Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkariera, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita linea hau: «Gamarra-Altsasu 1 eta 2» 30 kV DC aireko linea elektrikoa 195. eta 229. euskarrien artean aldatzeko proiektua, Arabako Burgelu eta Vitoria-Gasteiz udal-mugarteetan.

Jendaurrean jartzen da jarduketa hau eta, harekin batera, eskatzaileak nahitaez desjabetu beharrekotzat jotzen dituen ondasun eta eskubideen zerrenda banakatu eta zehatza, martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuak 10. artikuluan (2020ko apirilaren 24ko EHAA) eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuak 144. artikuluan (2000ko abenduaren 27ko BOE) aurreikusitako ondorioetarako, testu beraren azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoarekin lotuta, eta 1957ko apirilaren 26ko Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamenduak 17. artikuluan eta abenduaren 26ko 24/2013 Lege Elektrikoak 55. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

- Eskatzailea: I-DE Redes Eléctricas Inteligentes S.A.U. (egoitza: Urarte kalea 2, Vitoria-Gasteiz).
- Eskatutakoa: aurretiko eta eraikitzeko administrazio-baimena, ingurumen-ebaluazio sinplifikatua eta onura publikoaren deklarazioa.
- Helburua: zonaldean energia elektrikoaren horniketaren kalitatea hobetzea.
- Erreferentzia: 01ATY 202000044.

«Gamarra-Altsasu 1 eta 2» 30 kV DC aireko linea elektrikoa 195. eta 229. euskarrien artean aldatzea.

- Linearen ibilbidea: Burgeluko eta Vitoria-Gasteizko udalerrriak (Araba).
- Proiektu honen eraginpeko ondasun eta eskubideak: iragarki honen eranskinean jasotakoak.
- Aurrekontua: 254.569,34 euro.

Guztiak jakin dezaten ematen da argitara hau, eta, batez ere, proiektuak eraginpean hartzen dituen lurren jabeak eta gainerako titularrak jakitun egon daitezzen (jabe eta titular horien zerrenda iragarki honen amaieran dago jasota), hain justu ere proiektua aztertzeko aukera izan dezaten Industria Administrazioaren Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Vitoria-Gasteizko Samaniego kaleko 2an), dagokion udalean edo www.euskadi.eus web-orrian (Energia eta Meategiak/Energia ataleko Proiektuei buruzko Informazioari buruzko apartatuan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurklaritza/energia-meategiak/hasiera/>), eta aipatutako tokietan egokitzen diren alegazioen bina ale aurkezteko, hogeit eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 23a.

Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkaria,
JESÚS PASCUAL LORENTE.

2022ko ekainaren 22a, asteazkena

ERANSKINA

UKITZEN DIREN ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

«GAMARRA-ALTSASU 1 ETA 2» 30 KV DC AIREKO LINEA ELEKTRIKOA 195. ETA 229. EUSKARRIEN ARTEAN ALDATZEKO PROIEKTUA, ARABAKO BURGELU ETA VITORIA-GASTEIZ UDAL-MUGARTEETAN.

Udalerrria	ZK.	Jabeen datuak		Katastroko datuak			Ukipenak			
		Jabea	Poligonoa	Lurzatia	Laborea	Euskarriaren zk.	Euskarriaren okupazioa (m ²)	Linearen luzera	Heg. azalea	Aldi baterako okupazioa
Burgelu	9	Alfonso Ortiz de Zárate Osinaga	1	614	Laborantza ureztatua, behin-behinekoa; laugarrena	198N	7,29	217	2360	93
Vitoria-Gasteiz	21	José Antonio Aguirre Díaz de Arcaya	33	212	Laborantza ureztatua, behin-behinekoa; hirugarrena	203N1/2 204N1/2	3,13 3,13	123	1011	81
Vitoria-Gasteiz	34	Lauris Consulting SL (Fernando Orozco Yarnoz)	33	168	Lehorreko laborantza; hirugarrena	211N	6,25	83	8151	83
Vitoria-Gasteiz	43	Eduardo Sáez de Viteri Zuazo	32	73	Laborantza ureztatua, behin-behinekoa; hirugarrena	216N	6,25	191	1786	81